



*Memoria 2020*

**BILBAO**

**IRALA**

**AMETZOLA**

**GAZTELEKU**

## **Bilbao Gazteleku**

### **Erredakzioa:**

KEK Taldea

### **Diseinua:**

Itziar Palacios (elcubo)

### **Itzultzailea:**

Alex Barandiaran

### **Gazteleku Komunitate Garapen Elkarte:**

Altube zeharbidea z/g

48002 Bilbao

ici@gazteleku.org

*“auzoak  
abian”*

*Kulturarteko  
Esku-hartze  
Komunitarioa*

## HASTEKO OHARRAK

**4.***orria*

## ARKITEKTURA PROZE- SUAREN

**6.***orria*

## HITZ EGITEN DUTEN ZIFRAK

**12.***orria*

## EKINTZA ETA PROIEKTU

KOMUNITARIOAK

**14.***orria*

## ERAGIN NAGUSIAK

**50.***orria*

## ETORKIZUNA EPE ERTAINERA

**52.***orria*





## HASTEKO OHARRAK

---

Nork esango zigukeen sei urteetan zehar hainbeste harreman, esperientzia eta lotura izango genituenik? Baina ez edonolakoak... Ordea, auzokideen, elkarteen, giza-mugimenduen eta entitate publiko zein pribatuen mimoarekin, maitasunarekin eta ahalegin komunarekin Irala eta Ametzola auzoetan bizi diren pertsonen errealitatea transformatzen, ongizatea handitzen eta bizi baldintzak hobetzen dituen horietakoak.

Hain zuzen ere, Auzoak Abian Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko proiektuak **metodoa, ilusioa**

**eta denbora** gehitu ditu errealitatearen zenbait irakurketa, behar, baliabide, jakintza, ideia eta proposamen gerturatzeko eta elkarri lotzeko. Horrela, **lurralde honen eta bertokoen antolatze eta jarduteko gaitasuna sobera** frogatu da, bertan bizi garenon bizitzak hobetzeko helburu komunarekin, espazio eta harreman barneratzaileagoak garatzeko zein gizarte-ehuna bateratzeko ere.

Orrialde hauetan bizi izandakoa kontatuko dugu, gure ustez **badaudelako partekatuak izatearen alaitasuna merezi duten kontuak.**



## PROZESUAREN HELBURUAK

### Zer?

**Harreman-sarea** sortzea, lurraldean antzemandako arazo kolektiboak erantzun bateratuak sortzen laguntzen duena eta kohesioa, bizikidetasuna eta partaidetza sustatzen dituena auzokideen gizarte-bizitzan eta komunitarioan.

### Zertarako?

**Komunitate bateratua** lortzeko, guztien ongia bilatzeaz arduratzen dena, lurraldean identifikatzen dena, aniztasuna balioesten duena eta bere baitan sustatzen duena, partaidetzarako eta elkarbizitzarako tresnekin.

- Lurraldean bizi diren pertsonen **bizi-baldintzak hobetzea**.
- Gizarte kohesioa sustatzea **kulturarteko herritarren elkarbizitzaren** alde.
- **Lurraldeko eragileak** auzokideen beharrei erantzun kolektiboak bilatzen inplikatzeko.
- Lurraldean dagoen **lanaren eta jakintzen garrantzia azpimarratzea**.
- Komunitateko zenbait protagonista **harremanetan jartzeko, elkar ezagutzeko eta igartzeko espazioak sortzea**.



## PROZESU KOMUNITARIOAREN ARKITEKTURA

**Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko** Proiektua (Auzoak Abian) **2014an** jarri zen abian **Gazteleku** Komunitate-Garapen Elkartek, esku-hartze lurraldean errotutako entitateak, **Bilboko Udalak** eta **“la Caixa”** Fundazioak lan komun baten alde izandako konpromisoari esker: **Irala eta Ametzola auzoak hobetu, bertan dagoenaz abiatuta.**

6 urtetan zehar garatutako prozesuak zenbait harreman-espazio sortu ditu. Hauei esker, lan koordinatu eta iraunkorra garatu daiteke, prozesutik hobetzeko proposatzen diren hiru esparruei erantzuteko: **osasuna, hezkuntza** eta **bizikidetasuna.**

**Erakunde Harremanetarako Espazioa** (EHE): entitateen eta elkarte anitzen erreferenteez osatuta dago, modu formalean eta ofizialean, erakunde gisa, prozesuarekiko konpromisoa erakustea erabaki dutenak. Entitate horiek osatzen dituzten pertsonen banakako kon-

promisoez haratago doa eta, besteak beste, proiektuaren iraunkortasuna bermatzea bilatzen du epe luzera.

**Nukleoa:** Kulturarteko eta osasun esparruetako udaleko bi erreferentek, Gazteleku Elkartearen erreferente batek eta KEK Taldearen teknikari batek osatzen dute. Bere egitekoa, prozesuari laguntza estrategikoa eskaintzea da. Hori egiteko hilean behin bildu ohi da.

**Komunitate Lan-taldea:** Sei teknikarik osatzen dute. Teknikari horiek espazio parte-hartzaileetan dinamizatzailearen rola hartzen dute. Horrela, prozesuaren faseetan laguntzen dute eta prozesu komunitarioaren funtzionamendua bermatzen dute.

Prozesuaren testuinguruan, zenbait espazio konfiguratu dira esku-hartze ohituren inguruan antolatzen direnak: **osasuna, hezkuntza eta bizikidetasuna.** Harreman-espazio horietatik Programazio Komunitarioan adostutako ekintzak eta proiektuak bultzatzen dira.





## EHEREN SINATZAILEAK

- Bilboko Udala
- “La Caixa” Banku Fundazioa
- Gazteleku Komunitate-Garapen Elkarte
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratua
- Deusto Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea
- Hiesaren Aurkako T4 Elkarte
- Senideen eta Gaixotasun Mentalaren Bizkaiko Elkarte - AVIFES
- Médicos del Mundo-Munduko Medikuak
- Iralabarri Auzo Elkarte
- Torre Urizar Auzo Elkarte
- Cáritas Bizkaia
- Xenofobiaren Aurka Berdinak Gara Elkarte
- Iralabarriko Merkatarien Irala Berri Elkarte
- Asociación Amigos del Arte-Amiarte Elkarte



# TOPAKETA KOMUNITARIOAK





# PROZESU KOMUNITARIOAREN ARDATZ HISTORIKOA

2014

## ABIAN

### EKAINA

PROZESU KOMUNITARIOA  
ABIAN JARTZEN DA.

### URTEAN ZEHAR

- MONOGRAFIA  
KOMUNITARIOA.
- FITXATEGI  
KOMUNITARIOAK.

2015

## EZAGUTZEN

### MARTXOA

1. OGI FESTA.

### EKAINA

GAZTE-HARREMANEN  
ESPAZIOA SORTZEA.

1. UDAKO ESKOLA IREKIAK (UEI).  
OSASUNAREN ASTEA.

### URTEAN ZEHAR

- PSIKOMOTRIZITATE GELAREN  
PROZESUA HASTEN DA.
- DIAGNOSTIKO  
KOMUNITARIOA.
- PROGRAMAZIO  
KOMUNITARIOA.

2016

## NAHASTEN

### MARTXOA

2. OGI FESTA.

### APIRILA

1. TOPAKETA KOMUNITARIOA.

### MAIATZA

1. IPUIN KONTALARI IBILTARIA.

### EKAINA

GIZARTE-HEZKUNTZA MAHAIA  
ABIAN JARTZEA.

### URTEAN ZEHAR

- PROGRAMAZIO KOMUNITARIOA  
SOZIALIZATZEA ETA ZABALTZEA.
- IRALA 100 URTE.

2017

## LILURATZEN

### URTARRILA

2. TOPAKETA  
KOMUNITARIOA.

### MARTXOA

3. OGI FESTA.

### EKAINA

OZTOPOAK MAPATZEA.

### URRIA

OSASUN MAHAIA ABIAN  
JARTZEA.

### URTEAN ZEHAR

- "EUSKAL TXOKO"  
PROIEKTU BERRITZAILEA.
- MUJERES DE NADIE.

2019

## EBALUATZEN

### MARTXOA

5. OGI FESTA.  
4. TOPAKETA KOMUNITARIOA.  
EHE SINATZEA.

### EKAINA

GERTUKO MERKATARITZAREN 2. ASTEA.

### URTEAN ZEHAR

- EBALUAZIO KOMUNITARIOA.
- PROIEKTU BERRITZAILEA:  
"AUZOA PIZTEN: IKASGELATIK  
KOMUNITATERA".
- PROIEKTU BERRITZAILEA:  
"AUZO ISTORIOAK".

2018

## AURRERA EGITEN

### MARTXOA

4. OGI FESTA.  
3. TOPAKETA KOMUNITARIOA.

### EKAINA

1. GERTUKO MERKATARITZAREN  
ASTEA.

### URTEAN ZEHAR

- EBALUAZIOA KOMUNITARIOA.
- PROIEKTU BERRITZAILEA:  
"AUZOA PIZTEN".
- IKASTETXEEN KOORDINAZIO  
MAHAIA ABIAN JARTZEA.
- "IBILIZ" IBILALDI OSASUNGARRIAK.

2020

## BIRPENTSATZEN

### MARTXOA

6. OGI FESTA (BERTAN BEHERA).

### EKAINA

IPUIN KONTALARI IBILTARI  
BIRTUALA.

### URTEAN ZEHAR

- 6 URTEKO MEMORIA.
- PROZESUAREN INFOGRAFIA.
- "COVID 19" DIAGNOSTIKO ETA  
HAUSNARKETA KOMUNITARIOAK.

# HITZ EGITEN DUTEN ZIFRAK

Sei urte auzoak bizikidetzan oratzen! **Sei urte gertutasuneko eta konfiantzazko harremanak sustatzen, ehuntzen eta elkarlanean aritzen zenbait espaziotan**, non komunitate gisa ditugun ezinegonak partekatatu eta baloratu.

Sei urte hauetan zehar 600 ekintza komunitario baino gehiago burutu dira lurraldean, Irala eta Ametzola auzoetako 56.500 parte-hartzaile baino gehiagori zuzendutakoak. Prozesu komunitarioa zenbait faktoreei esker abian jarri eta garatu ahal izan da. Prozesuan

zehar, **zenbait lan-espazio** aktibatu dira, **baliabide ekonomikoak** lan komunitarioaren esku jarri dira eta **denbora zein ahalegin handia** eskaini dira esku hartu duten protagonisten aldetik.

Ondoren, 2014an prozesua hasi zenetik 2020ra arteko lan komunitarioa ikusarazteko asmoa duten datu esanguratsu batzuk erakutsiko dira. Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko Proiekturen (KEK) metodologiak eskainitako segimendu eta dokumentazio-sistemari esker atera dira datu hauek.

## DATU OROKORRAK

2014/2020 aldiko datuak, 6 URTEKO ESKU-HARTZEA

**615** *burututako*  
**EKINTZA KOMUNITARIOAK**  
**56.513** *partaide*

**826** *burututako*  
**LAN-ESPAZIOAK**  
**4.011** *partaidetza*

## ERABILITAKO DENBORA

2014/2020 aldiko datuak, 6 URTEKO ESKU-HARTZEA



### *ekintza-denbora*

AUZOKO EKINTZA  
ETA PROIEKTUEI  
ZUZENDUTAKO  
DENBORA





### *barreman-denbora*

PRESTATZEKO,  
JARDUTEKO, LOTZEKO,  
SORTZEKO ETA ERABAKIAK  
HARTZEKO ESPAZIOEI  
ZUZENDUTAKO DENBORA

# INPLIKATUTAKO AKTOREAK

2014/2020 aldiko datuak, 6 URTEKO ESKU-HARTZEA




# BALIABIDE EKONOMIKOAK


## 735.961€

2014/2020 aldiko datuak, 6 URTEKO ESKU-HARTZEA

## FINANTZAKETA GUZTIRA



## GASTUA GAUZATZEA





# EKINTZA ETA PROIEKTU

## KOMUNITARIOAK

Kozinatu dezagun! Kazola bat beharko dugu, handia bada hobe, inor gose izan ez dadin. Osagaien txanda... Lapikoko honen oinarria osasuna, hezkuntza eta elkarbizitza dira; lehenasunezko hobekuntza-esparruak Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko proiektuarentzat.

Osagai elikagarria eta zaporetsua gehituko dugu: **errealitatearen irakurketan partekatua** komunitatearen protagonisten eskutik. Diagnostiko komunitarioaren fasean zehar lehenetsi ziren ideiak edo korapilo kritikoak dira, programazioan biltzen diren bi esku-hartze ildoetan gauzatu zirenak:

- Pertsonen isolamendua gainditzea **auzokoa izatearen sentipenean sakontzeko**.
- **Haurtzaroan aukera-berdintasuna** sustatzea gizarte eta hezkuntzako esparruaren bidez.

Espeziak nahierara, gatza, piperbeltza eta partaidetza... Sua behar dugu! Su leuna, sukaldean magia gauzatzen dela zaintzen duena.

Su hau lurraldean txertatuta dago; gure auzoetan bizi diren **pertsonak, elkar-teak eta erakundeak** dira, "saretzen auzoa eraikitzeko" prest daudenak. Horrela, **aurretik zegoenaz baliatuz** abiatu ginen horixe indartzeko eta errezeta gero eta jangarriago eta osasuntsuagoak lortzeko.

Su txikian kozinatutako osagai horien nahasketaz zapore asko sortu dira, batzuk gustuko izan ditzakezunak eta beste batzuk gutxiago, baina... **denetatik frogatu behar da!**

Ondorengo orrialdetan lortutako errezeta batzuk dastatu ditzazun nahi dugu. Batzuk digerituak jada, beste batzuk irakite-prozesuan, baina denak zaporetsuak. Horietatik guztietatik ikasi dugu eta ikasten jarraitzen dugu. Sortzen joan diren oinarriko osagaien arabera taldekatuta ikusiko dituzu.

On egin!





ELKARBIZITZAN  
AUZOAK  
ORATUZ

# EKINTZA ETA PROIEKTU

KOMUNITARIOAK

## OGI FESTA

Gure lurraldeak iragan okina du; hortaz, ekintza honetan sortzen den topagunea ogira lotzeak zama sinboliko benetan garrantzitsua du. Iragana, zenbait ogiekin; oraina, prestatzeko moduekin eta etorkizuna, trukeaz aterako diren errezeta berrieekin, elkartzen dira.

Ogi festak, urteroko ospakizunak, bere edukiak garatzen joan ditu hiru alderdi dituen ekintza bat bihurtu arte: zenbait jatorrietako **ogien erakusketa eta dastatzea; elkarte- eta baliabide tekniko-azoka** standekin eta **tailerrak zein zuzeneko kultura-ikuskitzuna**.

Ekintza honen bidez bilatutako helburuak hauexek dira: lurraldearentzat **identitate barneratzailea** duen eredia sortzea, auzoetako **aktiboak eta gaitasunak** azalaraztea eta horien artean sinergiak bilatzea, baita **kulturarteko elkarbizitza** sustatzea ere.


Hori dela eta, jaiaren eguna bezain garrantzitsua, prozesu horren bidez, teknikariek, elkarteek eta herritarrek, bakarka, ikasturtean zehar, **harremanetarako formula berriak bilatzen** dituzte, edizio bakoitzean eskura dauden osagaiekin, aniztasunaren eta lan komunitarioaren jai-, topaketa-, ezagutza- eta aintzatespen-egun bat lortzeko.



- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTUA
- GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTUAK SUSTATZEN DITU
- IKT

4.820

partaide



2015ean  
abian jarrita

25 ETA 40 ENTITATE  
ARTEAN EDIZIO  
BAKOITZEAN

EKINTZA  
ESTRATEGIKOA

“Auzo bat,  
bere jendea, bere istorioa,  
bere bizitza, bere ogia...  
Hori guztia  
begi aurrean.”

ARANTZA ETXEBARRIA  
Komunitate Taldea

ELKARBIZITZAN  
AUZOAK  
ORATUZ

IRALA  
AMETZOLA

DANDO VIDA AL BARRIO - AUZOA PIZTEN



## AUZOA PIZTEN

Auzoak berpiztera zuzendutako ekintza honek, bi jarduera-ildo nagusi izan zituen:

-**Gertuko merkataritza laguntzeko kanpaina** (saltoki eta tabernetan euskarriak jartzea, gertuko merkataritzak lurraldean duen garrantzia eta bertan kontsumitzeak komunitatearentzat dituen onurak nabarmentzea).

-**Gertuko merkataritzaren astea** (saltokiek antolatu eta sustatutako ekintza ugari, tailerrak eta kale-animazioa).

Hona lortu nahi ziren helburuak: lurraldeko **merkataritza- eta ostalaritza-sarea sustatzea** eta **bertoko zein gertuko kontsumoa bultzatzea**, eremu irekiak dinamizatuz merkatarien, hezkuntza-komunitatearen eta osasun-arloko pertsona eta taldeen arteko bizikidetzeta eta loturak indartzeko. Ekimen hau **Osasun Komunitarioaren ildoari lotuta** egon zen, **adineko pertsonen isolamendu-egoerak identifikatu eta gainditzen saiatu zen**. Saltokiek, "Adineko Pertsonen Lagunak" izeneko merkataritza-sare bati atxikiz, zenbait konpromiso hartu zituzten, eta nolabaiteko sentsibilizazio-maila lortu zuten.


Bestalde, **hezkuntza-arloarekiko lotura** sustatu zen, **ikasketa-zerbitzua prozesuaren** bidez, Eskurtze BHIko ikasleek, hezkuntza komunitatea eta auzoaren beharrak lotu zituzten. bere Prozesu honi esker, irisgarritasun txarra zela eta lehenetsitako auzoko gune bat margotu eta txukundu zuten lan saio komunitario baten bidez.

2017-2018 ikasturtean zehar, ekimen honen testuinguruan landutakoari esker, "Auzoa pizten: ikasgelatik komunitatera" dinamikak itxura hartzen joan zen, ondoren Proiektu Berritzaile bihurtu zena, eta Irala auzoko merkatarien elkartearen sorkuntza ahalbidetu zen.

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTUA
- GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTUAK SUSTATZEN DITU
- IKT

2.411

partaide



2017an abian  
jarrita

EKINTZA ESTRATEGIKOA  
2 EDIZIO

**“Gure artean,  
saltokien artean,  
batera mugitzeko  
bultzada izan zen.”**

**ANA DEL CARRÉ**  
Ametzolako Merkataria



## AUZO ISTORIOAK, HISTORIADUN PERTSONAK

### BATZEN GAITUENA AURKITZEN

Ekimen honen oinarrizko premisa zera da: adina, generoa, gustuak, jatorria, lanbidea, ezaugarri pertsonalak, etab. dira bereizten gaituzten gauzak, anitzak egiten gaituztenak eta gure bizitzak kolorez betetzen dituztenak. Batzuetan, berezitasun horiek beldurren, gatazken edo gaizki-ulertuen iturri dira eta gure artean gerturatu eta ezagutu gaitezen ekiditen duten harresi ikusezinak sortzen dira. "Auzo Istorioak, Historiadun Pertsonak" elkar trukatzeko dugun horretan sakontzeko asmoa du, pertsona guztion bizitzak auzo beretik igarotzen baitira.

Identitatea eskaintzen digun espazio fisikoa eta emozionala da auzoa, zeinean gure elikaduraren, estimuen, bizi-zentzuaren, hezkuntzaren eta osasunaren inguruko oinarrizko beharrak asetzen (edo asetzeko borrokatzen) ditugun. Labur esanda, zorientasuna bilatzen dugun espazio bat da. Batzuentzat pasabide bat, beste batzuentzat, behin betiko errotze lekua, baina, batez ere, gure elkarbanatze, elkartze eta harremanetarako lekua da.


Idea guzti horietatik ekimen hori sortu zen, **pertsona desberdinen arteko ezohiko topaketak sortzea, zubiak egin eta harresi ikusezinak saltatzea errazagoa izatea zen asmoa.**

Bizitzaren bi ordu, leku atsegin bat, lau pertsona erakutsi nahi duten objektu batekin, bosgarren bat elkarrizketa laguntzeko eta hitzak heltzen ez badira, laguntzeko gida lerro batzuk.

Hau da ekintza honen lantaldeak entseatzeko dagoen formatua, oraindik eraikuntzan.



*partaide*



*2019an abian jarrita*

TALDE ERAGILEAN ETA  
ESPERIENTZIA  
PILOTUETAN

EKINTZA  
ESTRATEGIKOA

**“Hiru urte daramatzat auzoan eta esperientziak partekatzeko horrela elkartzen naizen lehenengo aldia da. Benetan aberasgarria da.”**

**MOHAMED KONE**  
Iralako Auzokidea

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



ELKARBIZITZAN  
AUZOAK  
ORATUZ



## MUJERES DE NADIE

Berdinak GKeren, Hegoetxea Elkarteen Federazioaren, lehen mailako ikastetxeen eta horien IGeren eskutik jarri zen abian esperientzia hau. Bere asmoa zera zen: Irala eta Ametzola auzoetan nazioarteko jatorria duten emakumeen **harrera egiteko, orientatzeko, euren arteko loturak sortzeko eta zaintza partekatuak izateko espazioak sortzea.**

Gosariak egin ziren eskoletako sarreran, haurren amei taldea ezagutarazteko. Zenbait hilabetetan zehar, hainbat jatorrietako emakumeak espazio honetan elkartu ziren zenbait problematika komunei heltzeko. Halaber, taldea auzoko jaietan modu aktiboan parte hartzeko bidea izan zen.


Parte hartu zuten emakumeen lotura-prozesua handia izan zen, zeinean sare ez-formalak sendotu ziren. Hala ere, partaidetza ahultzen joan zen eta esperientziaren talde eragileak ondorioztatu zuen ezarritako helburuak ez zihoazela proposamena zuzentzen zitzaizen emakumeek behar zutenarekin bat. Esperientzia-ikaskuntza garrantzitsua izan zen parte hartu zuten pertsona guztientzat zein KEK prozesu osoarentzat.

**Lan espazioetan hausnarketa ugari** erraztu zituen **herritarren parte-hartzea gauatzeko baldintzen** inguruan, baita bakoitzak herritarren parte-hartzea ulertzeko moduen inguruan ere, hau da zer, nola eta zertarako. Era berean, ekintza honetatik aurrera, emakume migratuen partaidetzari buruzko esperientziak partekatzeo mahai-inguru bat eratu zen, zeinetik ideia interesgarriak atera ziren; ondoren programazio komunitarioa garatzean inplementatu direnak.

- |  |   |
|--|---|
| <input type="radio"/> ABIAN DAGOEN PROIEKTUA                       | <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU |
| <input checked="" type="checkbox"/> KULTURARTEKOA                  | <input type="radio"/> BELAUNALDIARTEKOA                           |
| <input type="radio"/> IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU                  | <input type="radio"/> METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA       |
| <input checked="" type="checkbox"/> PARTAIDETZA SUSTATZEN DU       | <input type="radio"/> BOLUNTARIOTZA                               |
| <input checked="" type="checkbox"/> ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA | <input type="radio"/> OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU          |
| <input type="radio"/> PRESTAKUNTZA                                 | <input type="radio"/> IKT   |
| <input checked="" type="checkbox"/> AISIALDI OSASUNTSUA            |   |



partaide



2017an abian  
jarrita



**“Itxaropenarekin  
eta nolabaiteko  
frustrazioarekin  
bizi nuen.  
Aldi berean,  
iradokitzailea  
izan zen zenbait  
herrialdetako  
emakumeekin eta  
amekin elkartzea.”**

**KARLA ORELLANA**  
Hegoetxea



ELKARBIZITZAN  
AUZOAK  
ORATUZ

## IRALA100URTE

Iralaren mendeurrena 2016-2017 ikasturtean ospatzea **antolakuntza komunitarioa hobetzeko, talde-autoestimuan** sakontzeko eta lurraldearen antolakuntza-espazioetan pertsona berriak gehitzeko aukera ona izan zen. Kultura eta kirol-programazio zabala sortu zuen auzo-antolakuntzarako espazioa (Irala 100 Urte) sortu zen, bere prestakuntzan zein garapenean, sinergiak ahalbidetu zituen auzoko zenbait talde, erakunde eta pertsonen artean.

Hona garatutako ekimen batzuk: txirringularitza-lasterketa, atletismo-lasterketa, zinema-emanaldiak, haurrentzako jaiak, erakusleiho eta balkoi txapelketa, auzoko kaleen apainketa parte-hartzailea, auzoko historiari eta gaurkotasanari buruzko hitzaldien zikloa, Iralaren mendeurrenari buruzko erakusketa eta dibulgaziozko materiala, oroitzapenezko horma-irudi bat, etab.

**Ikaskuntza komunitario sakoneko espazioa** izan zen, kultura-eratzailerak anitzez osatutako talde oso handia eta heterogeneoa izan baitzen.

KEK prozesuarentzat une gogoangarria izan zen, esku-hartze komunitario eredu honek proposatutako metodologia ezagutzera emateko aukera eskaini zuelako eta parte-hartzaile asko aliatu bihurtu zirelako.



**partaide**



**2016an abian jarrita**

19 PERTSONA TALDE ERAGILEAN

**“Taldean lan egitea egundokoa dela egiaztatu nuen.”**

**M<sup>a</sup> JESÚS LANCIANO**  
Irala100Urte

**“Benetan atsegina izan da Iralabarri eta bere jendearen historian sakontzea, baita gaur nire auzoa denarekin partekatzea ere.”**

**IÑAKI LLAMAS**  
Irala100Urte



- |  |   |
|--|---|
| <input type="radio"/> ABIAN DAGOEN PROIEKTUA                       | <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU |
| <input type="radio"/> KULTURARTEKOA                                | <input checked="" type="checkbox"/> BELAUNALDIARTEKOA             |
| <input type="radio"/> IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU                  | <input type="radio"/> METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA       |
| <input checked="" type="checkbox"/> PARTAIDETZA SUSTATZEN DU       | <input checked="" type="checkbox"/> BOLUNTARIOTZA                 |
| <input checked="" type="checkbox"/> ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA | <input type="radio"/> OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU          |
| <input type="radio"/> PRESTAKUNTZA                                 | <input checked="" type="checkbox"/> IKT                           |
| <input checked="" type="checkbox"/> AISIALDI OSASUNTSUA            |   |



ELKARBIZITZAN  
AUZOAK  
ORATUZ

## GAZTEEN PARTAIDETZA

2015. urtean, Iralan zeuden zenbait erakunderen inguruan mugitzen ziren gazte ugariaren partaidetza bilatzen, **Gazteen Harreman Espazioa** bat sortu zen. Bertan, asmoa auzoko jaietan parte hartzea izanda, parte-hartzaileek agintea hartu zuten, indarrak batu eta koadriletako lehenengo olinpiadak abian jarri zituzten.


Esperientzia arrakastatsu horren ondorioz, taldea urtebete baino zertxobait gehiagoz mantendu zen. Epe horretan, auzoaren egoeraren eta herritarren zein gazteen partaidetzaren inguruan hausnartzeko zenbait topaketa eta jardunaldi sustatu ziren.

Laster, eta zeuden nahiari eta gogoei esker, taldea itxura hartuz joan zen eta **“Iralako Gazteria”** izena hartu zuen. Bizipen eta intentsitate handiko uneak izan ziren; alde batetik, konfiantzazko harremanak sortu eta auzoan konpromiso sozialarekiko esku-hartzea finkatzen lagundu zuten gazte ekintza-egitarau zabala burutzeko aukera eman zuen; eta, bestetik, talde gisa desagertzea eragin zuten desberdintasunak sortu ziren.

Parte-hartzaile gehienak **lurraldeko beste elkarte eta ekimenetan parte hartzen hasi** ziren: Jai Batzordea, koadrilen kudeaketa-taldean, Auzo Elkartean, Gazte Asanbladan, Euskal Txokon, etab.



**partaide**



**2015ean  
abian jarrita**

**“KEK-k lan handia burutu du, sarritan ezkutuak dauden, auzoaren errealitate anitzak erakusteko espazioak sortu baititu.”**

**ALEX BARANDIARAN**  
Jai Batzordea

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHEGIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



**AUZOA  
PIZTEN**



## AUZOAREKIN ETA AUZOARENTZAT IKASTEN


2018an, lurraldeko **Ikastetxeen Koordinazio Mahaiaren sorkuntzaz** gero, ikastetxeen partaidetza komunitatean helburu nagusia bihurtu zen, horrela “auzoa pizteko” eta hezkuntza-komunitateak garapen komunitarioan duen indarra eta garrantzia erakusteko.

Ikastetxeen arteko ekintzak, KEK proiektutik sustatzen den lankidetzaren eredu argia dira, onen bidez, hainbat eragile komunitariok, euren lana koordinatzen dute helburu komuna lortzeko.

Zentzu horretan, inauterietako desfilea, Mari Domingi eta Olentzeroren ospakizuna edo tankerako ekintzak nabarmentzen dira **elkarlanaren** eta horrek komunitatean duen eraginaren eredu gisa.

Mota horretako ekimenetan, harremanek dimentsio **zabalagoa dute eta hezkuntza-komunitatea garapen komunitarioaren funtsezko protagonista gisa** agertzen da.


1.519



partaide

2018an abian jarrita

EKINTZA  
ESTRATEGIAKOA



“Irala auzoko eskolek espazio goxo bat dute ideiak partekatzeko eta elkarren artean aurrera ateratzeko”

AITOR GARCIA DE ANDOIN

Ikastetxeen Koordinazio Mahaia  
(Eskurtze)

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHEGIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



**AUZOA  
PIZTEN**

## IPUIN KONTALARI IBILTARIA

Berdinak elkarreak, ikastetxeek eta IGEk partekatutako ekimena da. Urtero, ipuin kontalari ibiltariaren ikuskizunaren antolakuntzan datza. Orokorrean maiatzean taularatzen da lurraldeko lehen hezkuntzako ikastetxeetan.

Lurraldeko hiru eskolen arteko koordinazioa berreskuratzeko, **ikasgelan gurasoen parte-hartzea sustatzeko** eta **ahozko transmisioa eskola-eremuan kulturarteko oztopoak hausteko tresna ahalsua** dela egiaztatzeko sortu zen proiektu hau.

Ikasturte bakoitzean errepikatzen diren hiru fase ditu:

- Urtarrilean parte-hartzen duten eragileekin harremanetan jartzen da berriz, ikasturte horretako indar erabilgarriak neurtzen dira, narratzaileen taldea zehazten da eta egutegi bat finkatzen da.
- Martxotik apirilera kontakizunak hautatu eta adin ezberdinen arabera lantzen dira, muntaketak prestatu eta azkenik, entseatzeko dira.
- Maiatzean eskoletan antzezpenak ematen dira, ikastetxe bakoitzaren idiosinkrasiari aurre egiten dieten dinamika aldakorrek.

2019-2020 ikasturteko edizioa pandemiaren ondorioz baldintzatua ikusi da; hortaz, formatu birtuala hautatu zen, YouTube plataforma erabili zen eta eremuko gurasoek, artistek, merkatariek, irakasleek eta gazteek parte hartu zuten.



945

*partaide*



*2016an abian jarrita*

TALDE ERAGILEA: 10

4 EDIZIO

**“Hori gozamina  
neure barne-baurra  
ateratzen eta fantasia  
zein sentimendua  
partekatzen parte  
bartzea.”**

**ISABEL PÉREZ**

Ipuin Kontalari Ibiltariaren Talde Eragilea

- |   |   |
|---|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> ABIAN DAGOEN PROIEKTUA      | <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE-KOHEGIOA SUSTATZEN DU |
| <input checked="" type="checkbox"/> KULTURARTEKOA               | <input checked="" type="checkbox"/> BELAUNALDIARTEKOA             |
| <input checked="" type="checkbox"/> IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU | <input type="checkbox"/> METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA    |
| <input checked="" type="checkbox"/> PARTAIDETZA SUSTATZEN DU    | <input type="checkbox"/> BOLUNTARIOTZA                            |
| <input type="checkbox"/> ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA         | <input type="checkbox"/> OHITURA OSASUNTUAK SUSTATZEN DITU        |
| <input type="checkbox"/> PRESTAKUNTZA                           | <input checked="" type="checkbox"/> IKT                           |
| <input checked="" type="checkbox"/> AISIALDI OSASUNTUA          |   |



**AUZOA  
PIZTEN**



## AUZOKO OGIBIDEAK EZAGUTZEN

Ekintza-proposamen hau Osasun Mahai Komunitarioan sortu zen, **eremuaren baliabideen artean jakintzak trukatzeko dinamikari eta merkatariekin** "auzoa pizten" proiektu berritzailean burututako lanari zein **Ikastetxeen Koordinazio Mahaia** sortzeari esker.


Ekintzaren helburua da **auzoko lehen hezkuntzako haurrek lurraldeko** zenbait denda eta **saltoki** bisitatzera eta merkatariek normalean burutzen duten lana zein den zuzenean ikustea.

Auzoan burutzen diren ogibideen aniztasunak (fruta-denda, gimnasioa, txakur ile-apaindegia, tapiztegia, paper-denda, ile-apaindegia, joskintza eta konponketak, arte-galeria...) lan-ildo bat irekitzen du gertutasuneko merkataritzaren eta ardurazko kontsumoaren garrantziaren inguruan.

Zentzu horretan, unitate didaktiko bat sortu da, erabili nahi duten ikastetxeen jardueran lagun dezakeena.



*partaide*



*2018an abian jarrita*

2 EDIZIO

**“Gure auzoaren etorkizunari begira, ilusioaz eta esperantzaz bete ninduen ni entzutean jartzen zuten arreta ikusteak.”**

**ISABEL VAZQUEZ**  
Iralako Merkataria

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTUA
- GIZARTE-KOHEGIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



# AUZOA PIZTEN



## BOLUNTARIOTZA-PLANA

Ekintza hau, lurraldeko bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa, zenbait gizarte-taldean (Caritas, Berdinak) eta Eskurtze BHI zein Coamiko ikastetxearen irakasleen interesen ondorioz jaio zen.

Euren jarduera boluntariotzan oinarritzen duten kolektiboen errealitatea ikusita, **gazteen gizarte-partaidetza sustatzera zuzendutako estrategia** bat zehazten hasi da.


Lehen aipatutako ikastetxeetan lan-saioak burutzea da plan honen ideia nagusia, **boluntariotza zer den hausnartu eta dauden aukerak** ezagutzera emateko aukera izan.

Lurraldean dauden elkarten espazioetara (Jai Batzordea, Txirrikleta, Caritas, Jantoki Soziala, Gazteleku) in situ egindako bisitekin osatu dira saio horiek.

Proiektua abian jartzeko, bigarren hezkuntzako goi-mailako ikasgelak hautatzea estrategikoa izan da laster helduak izango diren gazteak baitira eta, nahi izatekotan, auzoko taldeetan borondatez parte hartzeko aukera izango baitute.




**partaide**



**2019an abian jarrita**

EDIZIO 1



**“Boluntariotzaren biztegian baino ez dira sinonimoak ematea eta jasotzea.”**

**ENRIQUE VAZQUEZ**  
Boluntariotza-Mahaia (Berdinak)

- |   |   |
|---|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> ABIAN DAGOEN PROIEKTUA      | <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU |
| <input checked="" type="checkbox"/> KULTURARTEKOA               | <input checked="" type="checkbox"/> BELAUNALDIARTEKOA             |
| <input checked="" type="checkbox"/> IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU | <input type="checkbox"/> METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA    |
| <input checked="" type="checkbox"/> PARTAIDETZA SUSTATZEN DU    | <input checked="" type="checkbox"/> BOLUNTARIOTZA                 |
| <input type="checkbox"/> ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA         | <input type="checkbox"/> OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU       |
| <input checked="" type="checkbox"/> PRESTAKUNTZA                | <input type="checkbox"/> IKT                                      |
| <input checked="" type="checkbox"/> AISIALDI OSASUNTSUA         |   |



**AUZOA  
PIZTEN**



# EKINTZA ETA PROIEKTU

KOMUNITARIOAK

## EUSKAL TXOKO

Euskal Txoko **euskal kultura eta euskara sustatzeko** elkarte da, Irala auzoan 25 urte baino gehiago finkatuta daramana eta **haur zein gazteekin jarduten** duena. Diagnostikoa egin ostean, auzoan aisialdirako baliabideen gabezia zegoela antzeman zen, baita elkarte honek zuen belaunaldi-aldaketaren beharra ere.


Modu horretan, 2017an, Euskal Txoko proiektu berritzaile bihurtu zen KEK prozesuaren baitan, elkarteari **belaunaldi-aldaketa** burutzen lagundu eta aholkularitza zein laguntza eskainiz. Horrela, elkarreak bere egintza-gaitasuna handitu zuen eta eremuko zenbait eragileekin modu aktiboagoan parte hartzen hasi zen antolakuntza-espazio komunitarioetan.

Euskal Txokok bultzatutako egitarauaren barnean, **espazio publikoa dinamizatzeko ekintzak, auzoko haurrei zuzendutako hezkuntza sendotzeko saioak eta udalekuak** antolatu dira euskaraz.

2017an, guztira 15 hurrek parte hartu zuten 5 eguneko lehenengo udalekuak jarri ziren abian. Ondoren 2020an, formatua 15 egunetara zabaldu da, Gazteleku elkartearekin lankidetzan, pandemiaren ondorioz sortutako familia ugariaren egoera orekatzen laguntzeko. Oraingoan, 23 hurrek hartu dute parte, 8 haur eta hezitzaile bat talde bakoitzeko gonda.

3.512

partaide



2017

**“Auzo-mailako ekintzetan euskarari tokitxo bat egiteko lanean dibardugu. Ildo horretan ezinbestekoa zaigu gainerako elkarreekiko elkarlana.”**

**UNAI MARTIN**  
Euskal Txoko



- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



**AUZOA  
PIZTEN**



### AUZOLAN

#### TOMAS CAMACHOKO PSIKOMOTRIZITATE-GELA

Hau izan zen KEK prozesuaren baitan garatutako **lehenengo ekintza komunitarioa**; hortaz, balio berezia du abentura honetan. Monografia eta Diagnostiko Komunitarioa egiteko prozesu hasiberriak, ekintza honetako talde eragileak beharrezkoak harremanak erraztu zituen, Osakidetza, IGEko, Tomas Camacho ikastetxeko eta Torre Urizarko auzo-elkarteko pertsonak osatutakoa, eskolako psikomotrizitate-gela birmoldatzeko aitzakiarekin eta behararekin, komunitatea indartuta ateratzea eragin zuen prozesu baten buru izan zen.

Bi lan-ildo garatu ziren: finantzaketa eta lanaren antolakuntza.

Alde batetik, **bigarren eskuko arropa eta objektuen azoka txikia antolatzea eta garatzea**, Torre Urizarko etxebizitza plazan, gela birmoldatzeko beharrezko materialak (margoa, psikomotrizitate blokeak, tresnak...) erosteko funtsak lortzeko asmoarekin. Azoka txikia osatzeko **haurrentzat tailerrak eta kale-animazioa** burutu ziren. Aldi berean, beste finantzaketa-iturri batzuk bilatu ziren lortutako diru-sarrerak osatzeko.

Bestetik, azoka txikia burutu ondoren, gela apaintzeko gaiak hautatu ziren. Horretarako, Joan Turu marrazkilariari baimena eskatu genion bere sormen-tako bat irudikatzen. Azkenik, **lurraldeko guraso, irakasle, haur, atezain, garbitzaile zein auzokideek parte hartu zuten lan-saioak** antolatu ziren.



partaide



2015ean  
abian jarrita



**“Guztion artean  
eskola bobetu dugu.”**


**ANA LAISECA**

Ikastetxeen Koordinazio Mahaia  
(Tomas Camacho)

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHEGIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



**AGURRA AHOAN,  
OSASUNA  
AUZOAN**



## ESKOLA IREKIAK

“Udako Eskola Irekiak” (UEI) **ekintza estrategikoa** 2015etik aurrera urtero garatzen den ekintza da. Bere helburu nagusia da **esku-hartzen den lurraldearen baliabideen garrantzia nabarmentzea eta komunitatearen ezagutzak eta jakinduriak partekatzea.**

Horrela, UEIen barnean garatutako ekintzak askotarikoak dira, bai formatuei bai antolatzaileei zein hartzaileei dagokienez. Hona zenbait adibide: koadrila-olinpiadak, gosari osasuntsuak, oztopo mapaketak, erorketa tailerra, ibiltari-sarea, sexualitate tailerra, elikadura osasuntsuko Masterchefa, etab.

2017an Osasun Mahai Komunitarioa abian jarri zenetik, harreman-espazio honen talde-eragileak UEIen ekintzak sustatu zituen eta lurraldeko baliabideen partaidetzan lagundu zuen.


Sustatutako programazioak **Osasun Komunitarioari protagonismoa** ematea du helburu eta **osasuna “egoera fisiko, mental eta sozialaren on-gizatea bere osotasunean hartzen duela, eta ez bakarrik afekzio edo gaixotasun eza”, pertsona guztientzat aitortutako eskubidea dela, eta giza faktoreak bitartekari dituena.**

Halaber, **gizartearen parte-hartzea indartzeko** jarduerak sustatzen dituzte, adibidez, Iralako jai herrikoien testuinguruan garatu zirenak, zeinetarako giza-baliabideak zein baliabide materialak erraztu ziren.

Bestalde, auzoa orokorrean dinamizatzea bilatu zen ere; hortaz, UEI euren egitarauan beste ekimen batzuk bertakotzen joan ziren, “Gertuko Merkataritzaren Astea” adibidez.




**partaide**



**2015ean  
abian jarrita**

**EKINTZA  
ESTRATEGIKOA  
6 EDIZIO**



**“Espazio pribilegiatua da, baliagarria izan da jakintzak trukatzeko. Sarean elkar nabastea auzo osasungarriak eraikitzeko da gure filosofia.”**

**KARMELE BARAINKA**

Nukleoa ( Udaletxe Osasun Zaila)

- |  |   |
|--|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> ABIAN DAGOEN PROIEKTUA         | <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU     |
| <input checked="" type="checkbox"/> KULTURARTEKOA                  | <input checked="" type="checkbox"/> BELAUNALDIARTEKOA                 |
| <input type="checkbox"/> IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU               | <input type="checkbox"/> METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA        |
| <input checked="" type="checkbox"/> PARTAIDETZA SUSTATZEN DU       | <input checked="" type="checkbox"/> BOLUNTARIOTZA                     |
| <input checked="" type="checkbox"/> ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA | <input checked="" type="checkbox"/> OHITURA OSASUNSUAK SUSTATZEN DITU |
| <input checked="" type="checkbox"/> PRESTAKUNTZA                   | <input type="checkbox"/> IKT  |
| <input checked="" type="checkbox"/> AISIALDI OSASUNTSUA            |   |



**AGURRA AHOAN,  
OSASUNA  
AUZOAN**



## PRESTAKUNTZA KOMUNITARIOA

Prozesu komunitarioak, hasieratik, zenbait prestakuntza-proposamen lagundu ditu, **harreman-espazioetan antzemandako beharrei aurre egiteko** ahaleginak egin dituztenak.


Prestakuntza ugari Osasun Mahaitik sustatu dira eta parte-hartzen duten baliabideen bitartez garatu dira. Aipatutako **“jakintzak trukatzeko”** dinamikaren bidez, lurraldeko dibertsitate hertzea lortu da. Dinamika honen helburua da lurraldean dauden jakintzen garrantzia nabarmentzea, beste baliabide batzuekin lankidetzan planifikatzen, antzemandako beharrei aurre egiteko.

Hona landutako zenbait gairen ereduak: pertsona migratzaileen eskubidea osasunera heltzeko, erorketa- eta sute-prebentzioa adinekoentzat, ikus-entzuzkoak, Zurrumurruen aurkako eragileak prestatzea edo sexualitatearen inguruko prestakuntza gazteentzat.

Etorkizunari begira, **prestakuntza-plan integrala** aurreikusten da, Talde Komunitarioak garatutako proposamen batean oinarritutakoa eta 2020 ikasturtean burutzekoa. Pandemiak esku-hartze eremuan izan duen eragina aztertu, zein egoera berri hau hobetzeko proposamenak antzeman eta bideratzea helburu duen, uztailen zehar **egindako diagnostikoan antzemandako beharrek** osatuko dute proposamen hau.



*partaide*



**2014ean  
abian jarrita**

10 EKINTZA

**“ Talde-lanak indartu nau eta aukera izan dut nire komunitatea hobeto ezagutzeko berarekin eta berarentzat jarduten.”**

**CARMEN BADIOLA**  
Bizi Bete - Caritas

- |  |   |
|--|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> ABIAN DAGOEN PROIEKTUA   | <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU         |
| <input checked="" type="checkbox"/> KULTURARTEKOA            | <input checked="" type="checkbox"/> BELAUNALDIARTEKOA                     |
| <input type="checkbox"/> IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU         | <input checked="" type="checkbox"/> METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA |
| <input checked="" type="checkbox"/> PARTAIDETZA SUSTATZEN DU | <input type="checkbox"/> BOLUNTARIOTZA                                    |
| <input type="checkbox"/> ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA      | <input checked="" type="checkbox"/> OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU    |
| <input checked="" type="checkbox"/> PRESTAKUNTZA             | <input type="checkbox"/> IKT  |
| <input type="checkbox"/> AISIALDI OSASUNTSUA                 |   |



**AGURRA AHOAN,  
OSASUNA  
AUZOAN**



## OSASUN MAHAI-JOKOA

2019an zehar Osasun Mahai Komunitariotik sustatu zen **proposamen pedagogikoa** da ekintza hau. Bere helburua **osasuna gaixotasun ezaz haraindi sustatzea** da, jokalaria osasunean eragin handia duten faktore pertsonal zein sozialak ezagutu eta kontziente egitea.

**Galderen eta erantzunen taula batean gauzatutako** ekimena, prozesua bultzatzen zuten entitateen lankidetzaren eta lan partekatuari esker burututa dago, baita garapenean parte hartu zuten baliabideei, elkarteei eta auzokideei esker ere.

Prozesu horretan, ikastetxeek egiteko oso garrantzitsua izan zuten, jokoaren edukian lagundu zutelako eta ondoren, haren pilotajeetan parte hartu zutelako.

Jokoa hiru fasetan sortu zen, egitura, auzoko kolektiboekin edukiak sortzera (galderak eta frogak biltzera) zuzendutako espazioak eta, azkenik, lurraldeko aktoreekin froga pilotuak sortzeko saioetan oinarritu zirenak.

Hauk dira jokoa, galderen edo frogen bidez, lantzen ziren **gai ezberdinak**: bizikidetasuna, hirigintza edo espazioak, eremuaren baliabideak, ezagutza orokorra eta beste hainbat. Prozesu komunitarioaren esku-hartze ildo nagusiak zenbait modutan eta gai horien bidez bildu ziren.



- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



*partaide*



*2019ean  
abian jarrita*

4 SESIONES  
DE PILOTAJE



**“Kolektibitateetatik osasun komunitarioari buruzko jokoa eraikitzeak Irala eta Ametzola auzoetako jakintzak eta usteak entzutea, (elkar) ezagutzea eta parte-bartzea dakar.”**

**BEA PÉREZ**

Osasun Mahaia (Munduko Medikuen)



Bizka

**AGURRA AHOAN,  
OSASUNA  
AUZOAN**



## OZTOPO ARKITEKONIKOEN MAPAKETA

Jarduera hau, 2017. urteko UEIen barruan, esku hartzeko **lurraldearen hirigintza diseinua aztertzea** eta irisgarritasuna zailtzen duten puntu gatazkatsuak aurkitzea zen helburua.

Ekimen hau garatzean, Irala auzoko zenbait kaletan zehar ibilbide bat egin zen zeuden arkitektura-oztopoak hautemateko helburuarekin.

Horretarako, auzoko **gazte-eragileen** laguntza bilatu zen, hauek, **Esklerosi Anizkoitza Egoitzaren** erabiltzaileekin batera, antzemandako jazoerak eta aspektu baikorrak fitxa batean erregistratu zituzten.


Eskurtze institutuak gurgil-aulkiak erraztu zituen parte-hartzaileek mugikortasun murriztua duten pertsonak aurkitzen dituzten zailtasunak lehenengo pertsonan nabaritu zituzten.

Mapaketaren ondoren, **ekintzaren memoria** bat egin zen, Bilboko Udalaren Mugikortasuna Sailera bidali zena antzemandako beharrak auzoko irisgarritasuna hobetzeko baliagarriak izan daitezen.

Horietako batzuk konpondu dira edo konpontzeko bidean daude, igogailuak jarriko diren Andres Isasiko eskailerak adibidez.



partaide



2017an abian jarrita

EKINTZA  
ESTRATEGIKOA

**“Jarduera bonek beste pertsona batzuekin erabat lagundu dit eta auzoak dituen beste behar batzuk ikusarazi dizkit.”**

**IKER PASCUAL**  
Iralako Gaztea

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHESIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT



**AGURRA AHOAN,  
OSASUNA  
AUZOAN**



## “IBILIZ” IBILALDI OSASUNGARRIAK

T4 Elkartek sustatutako **ibiltarien sarea** da “Ibiliz”, Irala eta Ametzolako Osasun Mahai Komunitarioaren alorrean sortu eta espazio horretan antzemandako zenbait beharrei erantzuna emateko asmoarekin proposatu zen.

Asmoa, herritarrek lurraldea era osasuntsu eta erakargarrian ibili eta ezagutu zezaten animatzea zen, **bizitza aktiboa izateko lurraldeak sortzen dizkigun aukerak** erakusten. **Aldi berean**, auzo bereko pertsonen arteko **ezohiko harremanak sortzea bilatzen zuen**.

“Ibiliz” Ibilaldi Osasungarrien testuinguruan, gertuena ezagutzeaz gain, Bilbo mailako interes orokorreko **ibilaldi tematikoak** antolatu ziren, gerturatu zirenei zenbait gaien inguruko informazioa eskaini zitzaien:


“**Ibiliz in-memorian**”-ek abenduak 1, “Minbiziaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna”, ospatu zuen ibilbide baten bidez eta Areatzako pasealekuan dagoen T4 elkartearen “Banku Gorria”-n egindako omenaldi baten bidez.

“**Ibiliz parke bio-osasungarriak**” ibilaldia bera eta Bilboko udalak antolatzen duen parke bio-osasungarrien inguruko ekintza lotu zituen eta horrela parte-hartzaileek aukera izan zuten gertuko parkeen makinaren funtzionamendua ezagutzeko.

“**Ibiliz emakume heroikoak**”, historiak ahaztutako Bilboko emakumeak oroitarazi eta berreskuratu nahi izan zituen.



*partaide*



*2018an abian jarrita*

SUSTATZAILEA:  
T4 ELKARTEA

**“Ateratzera lagundu gintuen, beste gauza eta pertsona batzuk ezagutzera. Auzoko jendeak ezagutu gintuen.”**

**MERCHE SIMÓN**  
T4 Elkartea

- ABIAN DAGOEN PROIEKTUA
- KULTURARTEKOA
- IKAS-ARRAKASTA SUSTATZEN DU
- PARTAIDETZA SUSTATZEN DU
- ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILPENA
- PRESTAKUNTZA
- AISIALDI OSASUNTSUA
- GIZARTE-KOHEGIOA SUSTATZEN DU
- BELAUNALDIARTEKOA
- METODOLOGIA, IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA
- BOLUNTARIOTZA
- OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN DITU
- IKT

# ERAGIN

## NAGUSIAK

● Azken 6 urteetan zehar, Auzoak Abian Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko prozesuak “auzoak abian mantentzeko” lan egin du. Horretarako, lurraldean eragin zuzena duten ekintzak sortzea eta planifikatzea ahalbidetu dituzten **harreman sareak sortu eta indartu ditu**.

● Harreman-espazioen egitura sendoa sortzeari esker, auzoetan dauden aniztasunak azalaraziz, komunitatearen beharrak biltzeko eta bideratzeko aukera egon da. Era berean, espazioetatik, behar horiei aurre egiteko erantzunak aurkeztu dira, lurraldean dauden taldeak inplikaturik eta **lehendik zeuden jakintzak balioan jarritz**. Hala, lan bateratuaren kultura sortu da gizarte kohesioa hobetzearen alde. Prozesu honek, bertoko testuingurutik, eremu zehatz batean bizi, jardun edo gauden pertsonen, instituzioen, erakundeen, elkarteen... ahaleginak batzeak eta sinergiak sortzeak, lurraldeko bizi-kalitatea hobetzen duela erakusten du.


● Prozesu Komunitarioan zehar, gizarte-kohesioa sustatzera bideratutako ekintza ugari burutu dira. Horien artean, Osasun Komunitarioa sustatzearekin lotutakoak, adibidez **“Agurra ahoan, Osasuna auzoan”** esperientzia. Honek, bizitza etapa guztietan hobekuntza dakarren ohitura osasungarriak sustatu eta aldi berean lurraldeko Osasun Komunitarioaren hobekuntzan, talde-erantzukizuna defendatzen du. Hezkuntza Komunitarioari dagokionez, ondorengo ekintza lerroan bezala: **“Auzoa pizten: ikasgelatik komunitatera”**, ikastetxeak euren lurraldean protagonistak izateko espazioak sortu dira; Oro har, komunitatea eremu pedagogiko gisa eskainiz, haien ezagutza sustatuz eta beraz, parte izatearen sentimendua indartuz. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da ere **“Elkarbizitzan auzoak oratuz”** burututako lana, lehenengo Ogi Festatik gaur egun arte, kulturarteko herritarren harremanak eta lurraldean existitzen diren antolamendu-espazioetan parte hartze anitza ahalbidetu duena.

**“Ez dugu Covid dela eta eten beharrik. Nire iritzia kontuan hartzea gustuko dut, gure ideiak onak ere baitira.”**

**SARRA ACHAB**  
COVID 19 Solasaldiak

**“Iralakoa naizela nabaritzea eta auzo hau maitatzea.”**

**ANDONI MATEOS**  
Komunitate Lan-taldea  
( Udaletxeko Osasun Zaila)



**“ Une zoriontsu  
horiek ditut  
gogoan,  
mundu osoko  
jendea ezagutzea;  
beti eskertuko  
dut hori.”**

**RUTH CASTEDO**  
Ogi Festa

**“ KEK-k metodologia  
parte-bartzailean  
jartzen du arreta,  
adostasunabilatzen  
duena eta, abaleginak  
korapilatzen,  
komunitatea ebuntzen  
duena.”**

**NURIA REGUEIRO**  
Komunitate Taldea

**“ KEK iraultza  
bat izan da  
Ikastetxe-auzo eta  
Auzo-ikastetxe  
ikuspegian.”**

**GORKA OLEAGA**  
Ikastetxeen Koordinazio Mahaia  
(COAMI)

**“ Prozesu  
komunitarioak  
aurretik  
ezarritako  
barremanek eta  
burututako lanak  
asko erraztu dute  
inguruan CPI  
bedatzea. ”**

**ZURIÑE BARRIOS**  
Caixa Pro Infancia




# ETORKIZUNA

## EPE ERTAINERA

Aurretik aurkeztutako guztian oinarrituta, prozesuak **ezarpen- eta heldutasun-maila handia** lortu duela ondorioztatu dezakegu. Hori dela eta, epe ertainera haren sakontasuna bilatzea planteatzen da. Jasangarritasuna, **Errekaldeko Barruti osora hedatuz**; izan ere Errekaldeberri-Larraskitu, Iturrigorri-Peñascal eta Uretamendi auzoek antzeko esku-hartze beharrak dituzte. Irala eta Ametzola auzoetan izandako prozesua barrutiko gainerako auzoetara hedatzeak aukera hauek emango ditu:

- **Sinergiak eta lankidetzak** lortzea auzo jakin batean edo, oro har, Barrutian modu berezian lan egiten duten profesionalen, zerbitzuen, erakundeen eta gizarte-eragileen artean.
- Gizarte-kohesioa eta bizikidetasuna hobetzen laguntzea. Iralan eta Ametzolan erabilitako **KEK esperientzia eta metodologia**, Errekalden dagoen **elkarteen eta zerbitzuen sare aberatsarekin** zein Gaztelekuk duen harreman-esparruaren ahalmenarekin batera, aukera paregabea da Barruti denboran jasangarria den kulturarteko prozesu komunitarioa sustatzeko. KEK Prozesuaren lotura eta osagarritasuna zabaltzea **Caixa Proinfancia Programarekin**. Barrutian dauden **baliabideak eta bitartekoak batu**, guztien ongiaren kulturara bideratuta. Barrutiko biztanleen, oro har, eta bereziki sektorerik ahulenaren, **bizi-kalitatea hobetzea**.

Era horretako planteamendu batek bide sendoa irekitzen du KEK ereduaren jarraipena, proiektzioa eta transferentzia lortzeko tokiko lurraldean, eta orain arte garatutako prozesuari, gizarte-kohesioaren eta kulturen arteko elkarbizitzaren aldeko lorpenei eta aurrerapenei balioa emateko aukera du, bai eta ekimen horren inguruan **erakunde bultzatzaile nagusien, erakundeen, elkarte mugimenduen eta herritarren artean sortutako aliantza estrategikoari ere**.



**“Prozesu bonek, tokiko eremutik, berresten du pertsonen, elkarteen eta erakundeen artean batera aritzea eta indarrak batzea funtsezkoa dela auzoen bizi-kalitatea hobetzeko.”**

**MIGUEL ÁNGEL GÓMEZ**  
Gazteleku Elkarte

# DABILEN HARRIARI...



...GOROLDIORIK EZ

*Memoria 2020*

**BILBAO**

**IRALA**

**AMETZOLA**

**GAZTELEKU**

Kulturarteko Esku-Hartze Komunitarioko Proiektua

KULTURA-ANIZTASUNA ETA GIZARTE-KOHESIOA

